

# BERRIAK BERRI

Anoetako  
aldizkari informatiboa  
**83 zenb.**  
2024ko uztaila






# AUZO LANGINTZA

# Larrialdi etxebizitza



# Udal larrialdiko harrera- zerbitzua abian da berriro Anoetan



**Indarrean zegoen ordenantzake zuzen berrmatzen gardentasunez eta era egokian eskaintzea zerbitzu hau. Denbora batez etenda egon ondoren, ordenantza egokitu da eta harrera zerbitzua berriro martxan jarri da.**

Udal larrialdiko harrera-zerbitzuaren xedea, egoera kritikoei erantzuna eman nahi dien larrialdiko behin behineko zerbitzua da. Etxebizitza, larrialdi egoeran dauden pertsona eta familiei bideratutako zerbitzua da, hala nola; etxeko indarkeria edota genero indarkeria ematen denean, etxebizitza hondamendi egoeran dagoenean, familia arazo larriak daudenean, pertsonaren segurtasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen denean, etxebizitzan irisgarritasun arazoak daudenean, hondamendiak, suteak, uholdeak etab.

Larrialdiko harrera zerbitzua Anoetan bizi direnek eta gutxienez errolan sei hilabeteko antzinasun jarraitua dutenek eskatu ahaliko dute. Etxebizitzan sartzeko hasierako eskaera Udaleko gizarte zerbitzuetan egingo da eta egoera bakoitza baloratuko da non gizarte langileak tramitatuko duen.

Alabaina, etxebizitza lagatzeak, herrian, zerbitzu publiko bat eskaintzen dela adierazten du eta horregatik, herri Administrazioen zerbitzuen eskaintza arautuko duen araubidea bete behar da. Besteak beste, erabiltzaileak ezingo du mugarik gabeko epean egon eraikinean, hau da, iraupen laburreko egonaldiak emango dira.

Halaber, Gizarte Zerbitzuak herritarrei bideraturiko zerbitzu tekniko erregular eta jarraituak dira. Arazo sozial zehatzak jorrazteko programak eta baliabideak daude zerbitzuan eta pertsona, familia eta taldeen gizarte ongizatea lortzea edo hobetzea du helburu. Bereziki, beharrak dituzten pertsonen eta bizitza-proiektua modu autonomoan garatzeko zailtasunak dituzten pertsona, familia eta taldeei zuzendurik dago. Aurtengo Anoetako gizarte zerbitzuetan indarrean dauden zerbitzu, programa eta laguntzen inguruko datu orokorrak honakoak dira:

Mendekotasuna eta ezgaitasunari dagokionean, etxeko laguntza zerbitzua indarrean dutenak 9 dira, egoitza iraunkorraren eskaera pertsona bakarrik egin du, adinekoen eguneko zentroko eskaera aldez 3 pertsonen egin dute, aldi baterako egonaldirako eskaera bakarra egin da orain arte.

Bazterkeria eta indarkeria matxista alorrari dagokionez, hamaika dira gizarte larrialdietarako onuradunak direnak, 20 familia dira elikagaien bankuaren onuradunak direnak. Era berean, sailetik indarkeria matxista jasan duten 6 onuradunei jarraipena egiten zaie eta haur eta nerbaeei dagokionez, udal esku hartzean guztira 4 familia dauden arren 9 haur eta neraben jarraipena egiten da.

## Herri baratza



# Anoetako Udalak herri baratza publikoen ordenantza berritu du

**2014.urtean onartu zen azkeneko herri baratza publikoen ordenantza Anoetan. Aurrerantzean, "Galbaio Herri Baratzak" izenez ezagunak izango direnak.**

Garai hartan onartu zen ordenantzak, egun, ez ditu onartzen Udalari dagokion gardentasun eta berdintasun printzipioak eta azken urteotan, herri baratza horiek eskaintzeko orduan, herritarrei arazoak sortu dizkie. Horregatik, onartu da Galbaio herri baratza publikoen emakida eta erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketa proposamena. Proposamen berria, anoetarrekin elkarbanatu eta hilabeteren buruan aldaketak jaso ondoren, behin betiko onartu da ordenantza.

Behin onartuta, herri baratza erabili nahi dutenentzako zerrenda irailean zabalduko da. Baratzak 2025. urte hasieran emateko dira 6 urteko erabilera ziurtatuz. Alabaina, esleipen berria abian jartzen den bitartean, gaur gaurkoz erabiltzaile direnei kalterik ez sortzeko (ereiteko prozesuan, landaketetan...) baratzak erabiltzen jarraituko dute 2025.urtera arte.

Kopuruari dagokionez, 43 baratza publiko daude Anoetan eta horiek erabiltzen jarraitzea bermatzea ez ezik, hauen erabilera



sustatzeko asmoa dago. Izan ere, herri baratza egitasmoaren baitan transmititzen diren baloreek garrantzi handia dute. Hala nola, lurrarekin eta ingurumenarekiko lotura, bertako produktua indartzea, autokontsumoa, elikadura osasuntsua sustatzea eta edukitzea, nekazaritza ekologikoa bultzatzea, komunitatea sortzea eta komunitateak eremu hori kudeatzea... zerrenda ireki eta orain artean baino jende gehiagok izena emango balu, Anoetako Udalak baratza publiko gehiago jarriko lituzke.

Ilido beretik, eremua txukunduko da eta bertako belar txarrak konpostatzeko guneak egokituko dira. Orain artean, baratzetan sortzen zen begetazioarentzako konpostatzeko guneak ez baitzeuden egoera onean eta ez ziren egokiak bertan sortzen zen materiala konpostatzeko. Hala, konpost gune horiek desmuntatu egin dira eta konpost gune zaharren materiala berrerabilita berriak eta egokiak jarri dira. Itxuraz



gune txikiagoak diren arren, kopuru aldetik gehiago ezarri dira. Horrez gain, beste hainbat hobekuntza ere egin dira, besteak beste, inguru garbitu eta herritarren atsedenerako bankuak jarri dira, herri baratzetako txabolen atzealdean espazio bat atondu da erabiltzaile bakoitzak behar dituen materialak bertan gordetzeko, eta takilen erabilera eta ordena txukunduko da.

## Auzolangintza



**San Isidro eguna izan zen maiatzaren 15ean, baserriarren eguna. Anoetako Udalak urteak daramatza egun honen harira baserri eta landa eremuaren inguruko ekimenak, jardunaldiak eta ekintzak antolatzen, eta aurten ere horrela izan da.**

Baserriak, baserriarrak, lehen sektorea eta landa eremua ez da egun bateko ospakizunarekin soilik bultzatzen, baina guzti hau balorean jartzeko beste modu bat bada.

2021ean Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Etorkizuna Eraikiz" deialdiaren baitan ekin zitzaion Auzolangintza proiektuari HUHEZI eta Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean. Proiektu honen helburua auzolana eguneratu eta sendotzea izan da, egungo gizartean dauden errokei erantzuteko lankidetzaren, erantzunkidetasunaren, gizarte inplikazioaren eta talde-lanaren kultura sustatzeko tresna gisa. Hala, maiatzaren 17an, "Auzolangintza" dokumentala eman zuten Udaletxeko pleno aretoan.

Dokumentalean, Tolosaldeko, Euskal Herriko zein Estatu Espainiarreko eta munduko auzo

inguruneke eta hiri inguruneke hainbat auzo agertzen dira eta herritarren eta auzolangileen testigantzak, hausnarketak zein bizipenak jasotzen dira. Gainera, auzolanak bere baitan biltzen dituen balioak helarazten ditu, hala nola, auzolanaren iragana, oraina eta etorkizuna; belaunaldien arteko transmisioa; kultura, hizkuntza, herrigintza, eta bizimodu ezberdinak ikustarazten dira.

Hurrengo egunean, larunbatean, Udalak eta ikastolak elkarrekin Auzolan eguna antolatu zuten. Kiroldigitik hasita Lasarbe errekararen inguruak garbitu ziren baso eskolan erabiltzen diren sailetara iritsi arte. Bildu ziren guztien artean lan handia egin zen eta giro onean, goiz ederra eta emankorra izan zen. Azpimarratzekoa izan zen parte hartze handia eta deiladiak izandako arrakasta.

## Hirigintza

# Anoetako sarrerako bidegurutzearen arazoa konpontzeko proposamen berria

**Anoetako sarrerako bidegurutzea arrisku-tua da herritarrentzat; herritik irteteko segurtasun falta handia dago eta gainera, Apatxe baserriaren parean dagoen autobus geltokia dela eta, autobus zerbitzua bertatik igaro behar denez, herritarri ez zaie segurtasuna bermatzen ez eta eremu egoki bat eskaintzen. Horregatik, Udalak urte asko daramatza eskatzen Irura eta Tolosa artean, Anoetako sarreran dagoen bidegurutzearen arazoari aurre egiteko konponbide bat.**

Bide horretan, Anoetako Udalak urteetan eskatu dio Aldundiari errepedia konpontzeko eta irtenbidea emateko. Udaletik lehenetsi izan den aukera, herriko sarreran biribilgunea egitearena izan da, arazoa konpontzeko aukerarik onena dela pentsatuz. Alabaina, Anoetako Udalak behin eta berriz jaso duen erantzuna ezezkoa izan da herriko sarrerak dituen ezaugarriengatik bertan biribilgunea bat egitea ezinezkoa dela arrazoituz. Egoera horrelakoa izanik, Anoetako Udalak Aldundiari proposamena bat egiteko eskatu zion eta Aldundiak proposamen berri bat aurkeztu zuen herritarren aurrean Udaletxeko Pleno aretoan. Aurkezpenean, proiektuaren azalpenak eman zituzten Aldundiko teknikariek zein ingeneroek.

### PROIEKTAUREN DESKRIBAPENA:

Proiektu honetan definitutako obrak bidegurutzea berrantolatzean datza, GI-3650 errepideak dituen biraketa-errei nagusiak kenduz, eta horrela, elkargune hori hiritarragoa izatea lortzen da, erabiltzaileak tartearen abiadura-muga errespetatzeko beharra senti dezan. Erdiko erriak kentzen direnez, GI-3650 errepidearen trazadura erri horien gainean desplazatzen da, eta horrek bidegurutzeko stop seinalea lekuz aldatzeko premia dakar. Mugimendu horren bidez, GI-3650 errepidera sartzeko gelditzen diren ibilgailuen ikuspena areagotzen da, Iruratik datozenen aldean. Egungo egoeraren deskribapenean aipatu zen bezala, eskola-autobusa Irurarako noranzkoan geratzeak ikasleak horretarako prestatuta ez dagoen leku batetik gurutzatzea eragiten du. Hortaz, eremua hiritarragoa izatea lortze aldera eta, aldi berean, erabiltzaile kalteberen bide-segurtasuna areagotzeko, semofoaren bitartez erregulatutako oinezkoentzako pasabide bat egitea proposatzen da. Behin proiektua ezagututa, Anoetako Udalak kontraktotasunik ikusi ez duenez, ontzat eman du proiektua eta Aldundiarekin adostuta geratu da gaia.

Jada hasi dira Anoetako sarrerako bidegurutzearen obrak eta 10 aste iraungo dutela aurreikusten da.

## Gazteria



## Buru handia egiteko tailer arrakastatsua



**Buruarin tailerra egin zen maiatzaren 23an eta 24an, Anoetan. Tailerra Gorka Olazabalek bideratu zuen, HH1-LH2ko haurrei zuzendurikoa. Saioak arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara egin ziren.**

Buruarin tailerra haurrei bideratutako buruhandiak egiteko tailerra da; herrietan ikusten diren buruhandi anitzak bezala, saio hauetan ere, hainbat buruarin mota egiteko aukera eman zen, hala nola, pailazo zuria, pailazo beltza, azenarioa, deabrua, anana, Intxisua...Pertsonaia edo elementu desberdinak zituzten aukeran hurrek tailerreko bi orduetan egiteko.

Hala, izen ematearekin batera haur bakoitzak tailerrean egingo zuen buruarina aukeratu zuen, eta, behin euren aukeraketa eginda, herriko plazan elkartu eta bertan sortze prozesuaren pausu desberdinak eman ziren.

Lehenik, buruarinei forma eman zitzairen eta gero, bakoitzaren aukeraketaren arabera, xehetasunetan sartu ziren hurrek eta gurasoak; Intxisuak andarrak zituen eta ananak adibidez, buruan punta desberdinak. Orduan, bertan zeuden profesionalen pausuak jarraitu eta pixkanaka buruarinaren sortzen joan ziren.

Tailer honekin hurrek euren tailer propioa izatea lortu nahi izan da, haurren presentzia

bermatzearekin batera. Halaber, hurrek gurasoekin elkarrekintza edukitzea bultzatu da, azken finean, familiei bideratutako tailerra izanik, herriko hurrek eta gurasoak beraien arteko harremana indartu, eta tarte dotorea pasatzeko aukera izatea gustoko ekintza batean parte hartuz. Hasiera batean, Anoetako Gazteria sailetik egun bakarreko tailerra antolatzea pentsatu zen, baina, lehenengo saioak harrera bikaina izan zuela ikusirik, bigarren egun bat ere antolatu zen. Tailer bakoitza 25 haurrentzat zegoen pentsatuta egitea, baina, aurretiaz aipatu bezala, tailerrak arrakasta handia izan zuen eta, guztira, bi egunetan, 60 haur eta guraso bildu ziren.

Saioak amaitu ostean, Anoetako gurasoekin elkartu eta balorazio erabat baikorra, positiboa egin da Udaleko Gazteria sailetik. Etorrizunari begira errepikatze moduko tailerra izan da, aldatzeko edo moldatzeko ikusi eta baloratu den gauza bakarra, tailerraren iraupena izan da, herriko txikientzat agian, saio luzeegia izan zitekeela kontuan hartuta.



## Herriko festak



## Eskerrik asko guztioi!

Pasa berri dira herriko festak eta eragileok balorazio positiboa egiten dugu. Oro har, giro ona izan da herriko festetan, eta zorionez, ez dugu inolako erasoren salaketaren berri izan. Eskerrak eman nahi dizkizuegu festak aurrera ateratzeko lan egin duzuen herritar guztioi, ekimenetan parte hartu duzuenoi eta txoznagunera gerturatu zaretenoi. Zuek gabe ez litzateke posible izango!

Ondo egindakoak eta hobetzekoak apuntatu ditugu, eta hurrengo urtean ere lan egingo dugu, elkarlanean, ahalik eta festarik hoberenak antolatzen jarraitzeko. Testu hau ere baliatu nahiko genuke Israel Palestinan egiten ari den genozidioa salatzen jarraitzeko eta antolakuntzarako deia egiteko.

Ongi izan!







## Herriko eragileak

### Anoetako Herri Ikastola

#### Ikastolaren eguna

Anoetako Herri Ikastola osatzen dugun guztiok (guraso, ikasle, irakasle eta langile, alegia) gure urteroko agendan badugu data esanguratsu bat, Ikastolaren Eguna, hain zuzen ere. Urte mordoa dira gure ikastolaren aitzakian gure komunitaterak herri nortasuna erakutsi duela. Gorabehera, aldaketak, moldaketak, berrikuntzak, ... baina beti herritarrok antolatuta eta aurrera eramandakoa.

Hasierako garaiak ez ziren egungoa bezalakoak, azpiegitura sortu behar baitzen. Oraindik gogoan ditugu bazkaria egiteko berariaz egindako paellera erraldoi eta pisutsu haiek, egurrezko suak, ... Hori guztia gogoz eta kementsu egin zen eta gu erakutsi eta ikasitako hori da oraindik balorean jartzen ari garena.

Gure heziketa ereduak luzaroan iraun dezan, noizbehinka bertako partaideak garela aldarrikatu behar dugu, modu alai eta gozagarri batez. Ikastola garenon artean egitea baino ariketa zintzoagorik ez dago. Animo eta sokak etenik eduki ez dezan!



#### Anitz Dantza Taldea

Kaixo!

Ekaina heltzearekin batera, ikasturte oparo honi amaiera emateko unea ere heldu da.

Azken hilabete hauetan, herritarrok behin baino gehiagotan izan duzue dantzarien asteroko lanaren fruituak taula gainean ikusteko parada.

Dantzari Txiki eguna, apirilaren 14an ospatu genuen. Eguraldia lagun, egun polita pasatzeko moduan izan ginen.

Herriko festetan berriz, bi emanaldi izan genituen. Alde batetik gaueko emanaldia eta bestetik festatako igandean dantzari txikiaren ikuskizuna. Bietan jende andana bildu zen eta balorazio positiboa egin dugu.

Ikasturteari amaiera emateko Herriarteko Dantzari Gazteen topaketaz gozatzeko aukera ezinhobea Ekainaren 21ean herriko plazan.

Amaitzeko, eskerrak udalari emandako laguntzagatik eta batez ere herriko talogileei, aurten ere Anitz egindako ekarpenagatik.

Laister arte

## Anoetako mugimendu feminista

### #NikSinistenDizut, #GukSinistenDizuegu

Maiatzaren 28an lau hilabete bete ziren Tolosako osteopataren aurka lehen salaketa jarri zenetik. Guztira, hamar emakumek\* salatu zuten sexu-erasoa eta gaur gaurkoz, erasotzailea behin-behinean espetxeratua dago. Gure babesa helarazi nahi dizuegu

prozesua bizitzen ari zaretenoi. Emakume hauek jasan dutena ez da kasu isolatua. Sistema honetan, indarkeria matxista egiturazkoa da eta bizitzako aspektu guztietan jasaten dugu. Horregatik, eskualdeko mugimendu feministako kideok

#NikSinistenDizut kanpaina jarri dugu martxan indarkeria matxistaren aurkako herri olatu zabal bat osatzeko eta eskualdeko emakume hauei babesa emateko. Hori horrela, datozen hilabeteetan antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeko deia egiten dizuegu. Guk sinisten dizuegu!

## Ezker Iraultzailea-Euskal Herria Sozialista

### Europako hauteskundeak

Eskuin muturraren aurrerakada sendoa eta sistemari eusten dion ezkerrean gainbehera. EAE mailan EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak, oso gertu izan du PSOE, eta urrunago geratu da EAJ. Hau Hego Euskal Herriko klase borrokaren egoeraren isla argia da. Europako hauteskundeen emaitzek ultraeskuindarren eta nazionalismo erreakzionario, arrazista eta populistaren aurrerapena berretsi dute, eta sozialdemokraziak jasandako gainbehera sakondu egin da murrizketei eta militarismoari hertsiki-hertsiki lotua baitago. Europako Alderdi Popularraren garaipenak, botoen % 25,83 eta 186 eserleku lortuta, 2019an baino lau gehiago soilik, kontraste egiten du alderdi ultraeskuindarren progresio esponenzialarekin; izan ere, ultraeskuindar alderdien artean, 175 eserleku inguru lortu dituzte, 2019an baino 45 gehiago, eta botoen % 24,3, azken hauteskundeetan % 18,4 lortu ostean. Datu horiek joera nabarmena erakusten

dute: eskuin muturra formazio kontserbadoreen espazio tradizionalaz elikatzen da, eta, lehenik eta behin, klase ertainen multzo handi askok erreakziorantz jo dutela erakusten du. Alderdi zentristak eta liberalak botoen % 14,38tik % 10,97ra igaro dira, eta 29 eserleku galdu dituzte, 2019an 108 izatetik 2024an 79 izateraino. Sozialdemokraziak (S & D) 19 diputatu galdu ditu, 154tik 135era, eta % 20,51tik % 18,75era jaitsi da. Kolpe horrek indar eskuindarretatik oso urrun jartzen ditu, beren krisi sakona berrestuz. Berdeek ere, Alemaniako homonimoak buru dituen taldeak, otanismoaren eta sionismo fanatikoaren defendatzaileek muturreko galanta jaso dute: 74 eserlektatik 53ra, 21 gutxiago, eta % 9,85etik % 7,36ra. Azkenik, Ezkerrak (Podemos, IU eta Frantzia Intsumisoa) 41tik 36ra egin du atzera, botoen % 5 bakarrik eskuratuta. Oro har, sozialdemokraziak, berdeek eta Ezkerrak 45 eserleku galdu dituzte.



Organizazio erreakzionarioen aurrerapena ez da saihestuko demokrazia abstraktua aldarrikatzen, ezta inoiz existitu ez den eta existituko ez den "Europa baketsu" bati dei eginez ere. EB ez zen sortu askatasunen proiektu aurrerakoi gisa, edo herrien arteko bake eta adiskidetasunaren proiektu gisa, baizik eta europar inperialismoaren apustu gisa, merkatuak eta eragin-eremuak kontrolatzeko, arrakasta handiagoarekin lehiatzeko eta kontinenteko langileak ahalik eta gehien ustiatzeko. EB neoliberalismoaren, NATOren eta zapalkuntza inperialistaren sinonimo da. Eskuin muturraren eta kapitalismoaren aurka alternatiba koherente bat planteatzeko gai ez den ezkerrean aurrean, altxatu egin behar dugu eta ez dugu etsi behar. Ezker otzan honen abokatuek hain ongi zabaltzen duten desmoralizazioak edo eszeptizismoak ez digu eragotziko gertatzen ari denaren mamia ulertzea.

## Parke osasuntsua



Iturtxulo 2 eta 4 eraikinen arteko gunean parke osasuntsua eraiki du Anoetako Udalak. Parke honetako tresnen bidez ariketa fisikoa egiteko erraztasunak jarri nahi dira, tamainako ariketa fisikoa ere osasuna zaintzea baita. Neurtutako eta bakoitzaren ahalen araberako kirolaren bidez zahartze osasuntsua bultzatzea garrantzitsua da eta hori gainera aire librean eta lagunartean egiten bada ahalik eta gehiago. Beraz, gune hau elkartzeko, elkarri zaintzeko eta ariketa osasuntsuak burutzeko eremua izango da.



**ZORU  
GOGORREKO  
ESKIA**

Gerriko muskulatura indartzen du, gorputzaren malgutasuna eta koordinazioa hobetzen ditu. Landu bizkarrezurra eta aldaka.



**ZORU  
GOGORREKO  
ARRAUNA**

Beheko gorputz-adarren, kuadrizepsen, bikien eta ipurmasailen muskulatura indartzen eta garatzen du.



**PASEOKO  
ARIKETA**

Beheko gorputz-adarren mugikortasuna hobetzen du, gorputzari koordinazioa eta oreka emanez, eta bihotz-biriketako tenperatura handitzen du.



**ZALDIAREN  
ARIKETA**

Hanketako eta bularreko muskulatura indartzen du, eta gorputz-adarrak erabat mugitzea ahalbidetzen du. Bihotz-biriketako gaitasuna hobetzen du.



**ZORU  
GOGORREKO  
ESKALATZAILEA**

Goiko eta beheko gorputz-adarren muskulatura indartzen du, eta artikulazioen malgutasuna hobetzen du. Bihotz-biriketako funtzioa handitzen eta hobetzen du.



**BIZIKLETA**

Hanketako eta bularreko muskulatura indartzen du, gorputz-adarrak erabat mugitzea ahalbidetzen du, eta bihotz-biriketako gaitasuna hobetzen du.

**PARKE OSASUNTSU HAU 6 ARIKETA TRESNAZ OSATUA DAGO**

## Albiste laburrak



### Kiroldegia

Kiroldegiko ur-hartunea instalazioa gaur egungo araudira egokitzeko, Anoetako Udala aldaketak egiten ari da. Lan honen helburua ur sanitarioaren eta suteak itzaltzeko uraren instalazioak banatzea eta irakurgai independentea jartzea da, arautegiak eskatzen duen moduan. Gainera, galdara sistemaren azterketa burutu da bertako erabilera eta kontsumoaren arteko desorekaren arrazoiak detektatzeko. Hurrengo urteetan aldaketak egiten joango da Udala, kiroldegiko kontsumoak doitzeko eta erregai fosiletan oinarritutako sistema pixkanaka energia berriztagarriengatik ordezkatzeko joateko. Anoetako Udalak lanean jarraituko du herritarrei zerbitzu ona eman ahal izateko azpiegiturak egokitu eta hobetzen.

### Herri sarrerako argiteria



Udal Brigadako langileek herri sarrerako argiteria indartzeko farola gehiago jarri dituzte. Batetik, Borondegí aurrean jarri dira Borondegí bera eta Apeadero Aldea auzorako bidea argitzeko; eta bestetik farmazi parean trenbide zubiaren gainean beste farola bat jarri da oinezko bidea argitzatzeko.

Udalak lanean jarraituko azpiegitura sarea indartuz herritarrentzat gune seguruak egokitzen.

### Segurtasun bailak

Anoetako Udalak Allegira bidean eta Iturralde baserritik Lumane baserrirako bidean segurtasun hesiak jarri ditu. Udalak lanean jarraituko du gune arriskutsuak identifikatu eta soluzio ematen herritarren bizi kalitatea hobetzeko.



### Elizako obra

Elizaren aterpea txukundu eta elizatik parkerako gune berria belar hazia bota da. Honekin bukatutzat ematen dugu elizaren aterpearen eta inguruaren txukunketaren obra.



### Herri sarrera

Herri sarrerako gunean autobus geltokia eta telefono kabina kendu ondoren, gunea txukundu eta atsedenerako bankuak jarri ditu Anoetako Udalak. Lasarbe 1 eraikinean ere banku bat jarri da, herritarren eskaerei eta beharrei erantzunez.



### Frontoia

Herritarren eta gehienbat haurren segurtasunerako frontoiko gradetako barandilak egokitu ditu Anoetako Udalak. Aurrerantzean ere arrisku guneak saihestu eta herritarren segurtasuna bermatuko duten egokitzapenak egiten jarraituko du Anoetako Udalak.





## Saharako errefuxiatu kanpamendutik, Anoetara.



### **Nor zara eta nondik zatoz?**

Bachir Souliman Mahfug Djli naiz. 10 urte ditut eta Hagunia-El Aaiun-tik nator.

### **Zer moduz bizi zara Anoetan?**

Oso ondo, gustora nago. Janaria goxoa dago eta gauza asko ikusi ditut.

### **Norekin eta zertara jolasaten duzu?**

Etxean kartetan eta partxisean June eta Nahiarekin. Kalean, futbolekin herriko lagunekin.

### **Zer ikasi duzu?**

Lh4an ikasi dut aurten.

### **Berrito itzuliko ziñake Anoetara?**

Bai, oporrek pasatzera 2 hilabete.